

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Martxoak 10 14. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Denok ezagutzen dugu San Pudrentzioko Gurutze Gorriaren postua

Deba Garaiko Gurutze Gorria

Gurutze Gorriak aspaldidanik eskaintzen ditu bere zerbitzuak munduan zehar. Gure artean ere, San Prudentzion duela sei bat urtetik hona zaintza-postu bat du, edozein larrialditan beren laguntza eskaintzeko asmoz. Jende ugari biltzen da bertara baina astean zehar soldaduzka bertan egiten ari diren gazteak aurkituko ditugu eta asteburuetan inguruko herrietatik Elorregira lan egitera hurbiltzen diren boluntarioak.

(14. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Epaitegia "Bake epaitegia" bihurtu nahi

"Ley de Plantas" en arabera Distrito-ko Epaitegi guztiak "Bake Epaitegiak" bihurtuko dira, kompetentzia gutxien duen epaitegi mota, alegia.

(11. or.)

Rocka hona etorriko da

Iniziatiba pribatu batek, Udalaren laguntzaz, Arrasaten Rock kontzertuak antolatzeko asmoa du. Horretarako igandekoa ("The lords..." ena) arrakastatsua suertatu behar da.

(12. or.)

ELKARRIZKETA

Rosi "Katanga" Otadui benetan emakume polifazetikoa dugu. Abeslaria, futbol entrenatzailea, masaialaria... "festibalera" tzat definitzen du bere burua.

(17. or.)

KIROLAK

Juan Jose Urrea

Gehienontzat ulertezina izan den erabaki baten legez, aurtengo 1. mailako txapelketatik baztertu dute.

(19. or.)

FOTOZAHAR

Hobekuntzak Arrasate Pressen: hemendik aurrera astero lau orri gehiago, eta sail berri bat izango duzue, fotozahar izenekoa, hain zuzen..

(27. or.)



Etxe-Aundi
Restaurant

Torre Auzo, 9 - Teléfono 943/781956 - OÑATI

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak	458744
--------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	798777

10 OSTIRALA

- **Zinea:** Alai: "Rattle and Hum" (U2)
Novedades (Bergara): "Big" 10,30etan.
- **Mahaingurua:** "Filosofia, zergatik?" UNEDen (Bergara); 7,30etan.
- **Goardiako farmazia:** A.M. Morales, San Andres.

11 LARUNBATA

- **Zinea:** Alai: "Rattle and Hum" (U2) 5etan; "La última tentación de Cristo", 7,30; 10.
Novedades (Bergara): "Big" 5;7,30;10,30.
- **Doke txapelketa:** Santa Barbaran, 2,45etan. AEKk antolatuta.
- **Txiste kontalari txapelketa:** 10etan Antzuolako zineman.
- **Antzerkia:** Taupada taldearen "Eta etxeok, zer moduz?" 10,30etan Amayan.
- **Goardiako farmazia:** Ruiz Torre, Ferrerías.

12 IGANDEA

- **Zinea:** Alai: "La última tentación de Cristo"

Novedades (Bergara): "Big" 5; 7,30;10,15.

- **Rock Kontzertua:** "The Lords of the new church" 8etan Kiroldegian. Sarrera: 800 - 1.000 pta.
- **Goardiako farmazia:** S. Español, Iturriotz.

13 ASTELEHENA

- **Zinea:** Alai: "La última tentación de Cristo"
Novedades (Bergara): "Big" 7,30etan.
- **Goardiako farmazia:** Corcuera, Elcano.

14 ASTEARTEA

- **Zinea:** Alai: "La última tentación de Cristo"
- **Goardiako farmazia:** Irizar, Erguin.

15 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:** Amezua, Santamaina.

16 OSTEGUNA

- **Perestroikako zinea:** "Gaia". Zuzendaria: Gleb Panfilov, 8,30etan Amayan.
- **Goardiako farmazia:** Aurora Ruiz, Magdalena.

ERAKUSKETAK

- **Estibaliz Ormaetxea:** Pintura-erakusketa, Etxe-Aundi jatetxean. (Oñati). Hilabete osoa.
- **Joseba Lacadena:** Pintura-erakusketa, Galeria 44an.
- **Lau maisu europear:** Erakusketa pedagogikoa, gaur azken eguna.

IKASTAROAK

- **Txalaparta:** larunbatero 9etatik 1etara. Ekainaren 24rarte. Izena emateko epea: Martxoak 13-31, Udaleko Gazteriaren Departamentuan. Matrikula debalde.

ZINEMALDIAK

- **Mendi Zinemako Zikloa:** 13, 14, 15, 16 eta 17an, 8etan UNEDen (Bergara).

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio

-kontseilua: Jose Felix Diaz
de Tuesta
Harry Zaraia
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Mikel Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-1b. Tfnoa. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Ipuin galduak

Gabriel Garcia Marquez kolonbiar idazleak artikulu interesgarri bat aurkezten zuen, zenbait egun direla, La Habanako "Granma" egunkarian. Nobel saridunaren eritziz, badira munduko literaturarik gehienetan sarri errepikatzen diren ipuinak. Ipuin bitxiak, askotan; ulertezinak gehienetan.

Hori horrela dela aspaldi dakigu eta folkloeari begirada bat eman besterik ez da egin behar baiez-tapena frogatzeko. Baina Garcia Marquezek azaltzen zituen ereduak eguneroko jazoeretatik hartuak zirela zen arreta sortu zidana. Horietako asko gaurkotasan guztiaz agertzen dira irakurlearen begietara, ezagutzen ez den prozedura apartakoaren bitartez iritsita.

Eta kolonbiarraren artikuluan zetorren kontakizun bat, nik Arrasaten oraindik hainbeste denbora ez dela entzundakoa zen. Autostoparen ipuinari nagokio. Ez al dizute irakurle, inoiz ezagutarazi? Neri kontatu zidanak istorioa ezezik baita protagonistaren izena ere eskaini zidan, kontakizunean zalantzaren bat baldin banuen harengana joan nendin, nonbait.

Ea atsegin duzun: Urlia Burgosetik zetorren bere kotxez eta autostop egiten ari zen neska bat

hartu zuen. Hizketan hasi eta halako batetan neskak zera eskatu zion, aurrean zeukaten bihurgunean kontuz gidatzea.

Arrasatearrak jaramon eginik, zuhurtasunaz hartu zuen bihurgunea. Handik irten eta burua neskarengana itzuli zuenean... huraxe us-tegabea!... neska ez zegoen bere eserlekuan! Kotxea gelditu eta inguruak miatu arren ez zuen bidaiariaren arrastorik aurkitu. Gero jakin ahal izan zuenez, zenbait urte lehenago bihurgune hartan neskaren jantzi berberak zeramatzen neska bat hila zen istripuz.

Ez dut uste kontatu zidanak engainatu nahi ninduenik. Eta protagonistaren zehazkizunak ez zituen bere kabuz asmatuko, ziur. Nonbaitetik iritsiko zitzaizkion. Horrengaitik, Gabriel Garcia Marquez irakurri dudanean ideia nagusi bat etorri zait gogora: gizakien arteko antzekotasuna. Kontakizun berdinak eragin berdina du mundu desberdinetako bi gizakirengan. Are gehiago, ipuina bera aldatuz joan daiteke, aro diferenteen arabera, gertaera-gunea errespetatu. Giza gogo asetezina omen dugu, zentzuz-kanpoko esperientzietatik hurbil bizi nahi ei duelarik.

Josemari Velez de Mendizabal


LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



PEÑACOBIA

Auto-Eskola

Zarugalde, 46

Tfnoa: 79 29 93

79 14 01

ARRASATE

ASTE SANTUKO OPORRAK

- **Benidorm** _____ 13.323 pta. tik gora.
(egunak: 4, 5, 7, 9 eta 10). Busa + hotela
(Pentsio Osoa).
 - **Salou** _____ 14.200 pta. tik gora.
(egunak: 4, 5, 7 eta 10). Busa + hoteles
(Pentsio Osoa)
 - **Almuñecar eta
Costa Sol** _____ 24.550 pta. tik gora
(Martxoaren 25tik Apirilaren 2era).
Busa + hotela
(Pentsio Osoa)
 - **Paris** _____ 19.300 pta. tik gora
(5 egun) Busa + hotela
(Alojamendua eta gosaria)
 - **Lisboa** _____ 22.800 pta. tik gora
(5 egun) Busa + hotela
(Alojamendua eta gosaria)
 - **Londres** _____ 33.300 pta. tik gora
 - **Canarias** _____ 51.800 pta. tik gora
(9 egun) (Martxoaren 25tik Apirilaren 2era).
- Elurretarako berezia: Asteburukoa**
Formigal _____ 7.700 pta. tik gora
Busa + pentsio erdia + Erremonteak

20.500-Mondragón.
Maestro Arano (Portalón), nº 8
Telf.: (943) 79 99 22 - 32

VIAJES EROSKI
BIDAIAK

ASA ASEGURUAK

Ze u zertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Baserriko bizitza

Gure baserriari buruz zerbait hitzegin nahi dugu edo behintzat saiatuko gara.

Aitalehenak baserrietan bizi izaten ziren. Lurretik eta animaliak haztetik bizi ziren. Baina progresoa heldu zen, gauzak aldatu ziren eta lehen zoko industrialak agertu ziren. Honekin heldu zen inmigrazioa. Alde guztietako jendea etorri zen Galiziatik, Andaluziatik etab.; eta baserriko jendea ere hirira jaitsi zen eta baserriarren bizitza aldatu zen. Hirian elektrizitatea, telefonoa, eta abantaila gehiago aurkitu zituzten.

Baserritarak hirira jaitsi zirenean lan egitera, arazo handiak aurkitu zituzten hizkuntzarekin, erderarekin hain zuzen zen eta gainera debekatuta zegoen euskaraz hitzegitea erregimenagatik, ondorioz zoko industrialean galduz joan zen. Baserriak abandonatu ziren, bakarrik geratu ziren zaharrak. Orain euskara berreskurazten ari da eta jendea baserrira itzultzen ari da lan egitera hirian langabezia asko dagoelako jendea baserrira itzultzea gauza bat da, baina beste gauza batzu daude, adibidez bere arbasoak aurkitzea.

Espero dugu informazio hau zuentzat interesgarria izango dela.

AEKko 3. urratseko talde bat.

Berandu bada ere!

Lehenengo eta behin Zorionak eman beharrean aurkitzen naiz egindako apostua, Arrasate Press hau astero ateratzearena hain zuzen, egindakoa, irabazitza eman daitekeelako. Dozena bat ale aski bait da hori frogatzeko.

Bigarrenik eskerrak astero-astero Eibarren ere jasotzen dugulako eta, guri eibartarroi, zuzendua egon ez arren interesgarria bait da guretzat astero zuen berri izatea.

Bestalde, zuen ausardiak produktua egiteaz gain dauzkan baloreak: animoa irradiatzea, eredu eskaintzea, erreferentzia edukitzea... beharrezkoak gertatzen zaizkigu era honetako eginkizunetan murgildurik gabiltzanontzat.

Animo eta proiektu izatetik beharrezko errealitate bilaka bedi Arrasate Press, geroan jarraipena eduki dezan.

*Eibarko Euskara Zerbitzua
Fernando Muniozguren*

Deba Garaiko sanitateaz

Kuota ordaintzeaz gain, zer egin behar dugun Gizarte-Segurantzako afiliatuok, Anbulategietan eta Eskualde Ospitalean gaur egungo beharretara egokitutako zerbitzuak edukitzeko?

1988. urtean, Gizarte-Segurantzak gure eskualdetik 10.800 milioi pezeta jaso izan du, baina kontzeptu guztietan itzuli digun dirua ez da kantitate horren erdira ere heldu, bakarrik 5.160 milioi pezeta inguru itzuli bait dira.

Nabaria da, beraz, jasatzen ari garen desoreka eta, hain zuzen ere, desoreka horren ondorioz sortu den kolokako egoera gehien pairatzen ari direnak, langile-familiak dira. Eta zergatik jasan behar dituzte heuren zerbitzu horretako eskasiak eta premiak, OSAKIDETZA delako horren arduradunek daramaten gestioa txarrak dirauen bitartean eta Udalek eta Deba Garaiko Udal-Elkarteak SANITATE arloan inolako politika zehatzik ez duten bitartean?

M. Garai

Emakumeak eta gizonak egoera berean al daude?




Marije Arrizabalaga
(Irakaslea)

Ez. Lehengo egoera berean gaude, nahiz eta aurrerapen txikiren bat egin, ez da aurrerapausu handirik egin eta hori garbi ikusten da lan eske joatean.



Balentin Jauregi
(Jubilatua)

Emakumeak eta gizonak Euskal Herrian betidanik berdinak izan dira. Gurean amak aitak beste agintzen zuen. Afrikara joanez gero beren egoera txarra dela ikusten da, baina hemen... Hemengo erregina emakumea izen da beti. Kalean kontu honi garrantzi gehiegi ematen zaio.



Luis Zabala
(Dendaria)

Ez dakit, agian lanpostu bat lortzeko orduan ez dituzte aukera berdinak.



Amalia Gómez
(Etxekoandrea)

Gutxi gora behera. Emakumeek beren eskubideak eskatzen dituztela nabari da.

DEBA GARAI UDAL-ELKARTEA

Mankomunitateko Gobernu Batzordeak hasera izaeraz onartu zuenez, joan den Otsailaren 8an egindako sesioan, **Impolusa S.A.k** erredaktaturiko **Deba Garai Mankomunitateko Hondakin Inerteentzako Zabortegei Kontrolatuaren proiektua**, zeinaren kontratazko aurrekontua 400.165.194 pezetakoa baita, eta berak erasandako ondasun eta eskubideen titularren zerrenda duena, jendaurrera zabaltzen da iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatutako 15 eguneko epez interesatuek egoki diren erreklamazioak egin ditzaten.

Arrasate, 1989ko Otsailak 13.

Lehendakaria

.....
"Arrasatera joan aurretik inoiz ez nuen partidu serio-rik jokatu. Eskola Profesionalera joan nintzen ikastera eta hango batek animatu ninduen txapelketa batean jokatzera. Orduan irten nintzen lehenengo aldiz frontoi-
ra zuriz jantzita"

(Josean Tolosa pilotari profesionalak
ETBleko "Funtzioa" saioan)

"Ines Ruiz de Otoraren momiaren ikerketak interes zientifikoa zuenez, "Aranzadi"koek analisisa egiteko baimena eskatu ziguten eta, gotzaiarekin gai honetaz hitz egin ondoren, Elizak zientziaren probetxuan eginiko lan hau begi onez ikusi zuen eta gure baimena eman genuen, ez bait du Elizak zientziaren kontra ezer"

(Juan Mari Astigarraga, Mondragoeko
parrokoak "Hemen" astekarian)


"Sortzaile diren neurrian beie zor zaie errespetua, Mahomari eta Rushdie-ri (...) Ez dut uste idazleari mugak ipin dakizkiokeenik. Mugak nor bere buruari ipini behar dizkio (...) Errespeto handia diet musulman guztiei, fanatiko edo ez. (...) Zer gertatuko zatekeen Rushdie iraniarra izan balitz? (...) Hipokresia tanto bat ere badago asuntu honetan. Euskal Herriak armak saldu dizkio Irani eta saldu nahi dizkio. (...) Munduak mundu izaten jarraituko du eta Rushdie-ren kasua ahaztu egingo dugu"

(Josemari Velez de Mendizabal, idazle
arrasatearrak ETBleko "Ezbaian" saioan)

"Eusebio Osa euskara "egokia"ren aita dela esan dezakegu, hitzen ordena testuinguruak determinatzen duela frogatzen duen tesi bat aurkeztu baitu funtzionalismoaren bidetik. Bergarar honek 52 urte ditu eta garai batetan ezkerreko talde iraultzaile txikietan egia handiak predikatzen ezagutu zutenen seme alabei euskal filologia erakustera dedikatzen da gaur. Ironia eta kritika dira bere inteligentziak ondoen erabiltzen dituen armak eta lehengo eta oraingo egia haundiak erlatibizatzea gus-
tzen zaio".

(Joxean Agirre kazetariak "Hemen"
astekarian)

**Fiskaltasunaren ikuspe-
gitik, zernolako ondo-
rioak dakartza Auzitegi
Konstituzionalak senar-
emazteen Errenta-Ai-
torpenari buruz eman
berri duen epaiak?**



Auzitegi konstituziona-
lak, eman berria duen ira-
gan otsailaren 20ko epaian

-77 foliotan idatzita- inkonstituzionaltzat deklaratu du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFFZ) erregulatzen duten arauetako zenbait manamendu, ezarri, funtsean bidegabekoa dela famili unitateetako kideen errentak metatzera obligatzean zerga-karga ere gehitzea (horixe bait da bi ezkontideek lan egiten duteneko matrimonioekin gertatzen dena)

Epaiak ondorio bezala zera dakar; Hemendik aurrera, diru-sarrera bat baino gehiago dituzten matrimonioek, beren errendimenduak metatuz egin beharko zuketean baino gutxiago ordainduko dutela PFFZen kuota.

Nahiz eta Epaiak ez duen atzera-eragiteko joerarik, eta beraz ez dien erasango aurreko urteetako errenta-deklarazioei, badu eraginik 1989an aurkeztu behar den 1988ko ekitaldiko deklarazioentzat. Horren ondorioz, bada, legegilea bere arauak lehenbailehen aldatu beharrean aurkitzen da hurrengo deklaraziorako, eta horrek atzerapen bat ekarriko du Zergaren deklarazio-epeari dagokionez, ze, epe hori, agintari fiskalen lehen deklarazioen araber, 1989ko udazkenean emango bait da.

Juan Larrañaga

LKA-ko Lege-Aholkularitzako Dptu. burua.


gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457


ARRATE IRRATIA, S.A.
FM - 101,5
Goizeko 9etatik
Gauko 11ak arte
Irratsaio denak EUSKARAZ
ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK

Iturriotz, 15

Tfnoa: 791516




AKOBEREaren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

KOLITZA

FAGOR SUKALDEEN HORNI-
KETA OSOA - OPARIGIAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

Lagunak Oro Lagun Aron



Lagun Aro Aseguruetan gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiei zerbitzu onena emateko asmoz.

Lagun Aron poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.


Lagun Aro Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruaren Elkarteko partaide bezala.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK


Lan Kide Aurrezкия Taldekoa

Jendearen arretarako orduak




Goizetan
8,30etatik 14ak arte



Arratsaldeetan
16,15etatik 17,30ak arte



Larunbatetan
8,30etatik 13ak arte



Gipuzkoako Kutxaren bezero izan eta Arrasaten bizi bazara, orain luzaroago gauzkazu zeure zerbitzura.

Zeure herrian bertan.

Sukurtsalak ordutegi zabalago eta erosoagoan irekitzen ditugu-eta. Beste inora joan beharrik ez izateko. Eta denbora irabazteko.

Arrasaten, Kutxa zu gehiago eta hobeto zerbitzeko dago.

Goizero, baita larunbatetan ere. Eta arratsaldero, astelehenetik ostegunera bitarte.

.....

- Garibaiko Sukurtsala.

Goizero, astelehenetik ostiralera bitarte.

.....

- Zigarrolako Sukurtsala.
- Munareko Sukurtsala.
- San Andresko Sukurtsala.
- San Juango Sukurtsala.

GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA

laburrak

✓ Gas naturala heldu da

Hilaren lein Gas Naturala heldu zen Gipuzkoako lehen etxebizitza partikularra; Erguin auzoko bati, hain zuzen ere. Instalazio osoa 5 egunetan egin diote, eta etxe honetako emakume batek esan zigunez, "miragarria da, piztu eta ordu laurdenera radiadore guztiak bero daude; gainera, indibiduala izateak kriston bentaja suposatzen du".

✓ Bihar, "Zuhaitz Eguna"

"Zuhaitz Eguna" dela eta, Gargartzako oinezko lertxundian 42 ezki eta Aldaingaineko lorategian eta "Villa Amparo"ko etxeetan zuhaitz hauek landatuko dira: 32 alibustrum japonikoa, 4 liquidarbana eta 4 carpinuesa. Zuhaitzak Arrasateko ikastetxe guztietako OHO 6. mailako umeez landatuko dituzte.

✓ Etxebizitzetako buruzko mahain-gurua

Gazteri Batzordeak Martxoaren 21rako "Gazteria eta Etxebizitza" izenburuarekin mahaingurua antolatuko du. Debatean honako partaide hauek izango da: J.M. Usatorre (Udala); Gasteizko Udaleko Etxebizitzaren Batzordeko partaide bat; Donostiako "squatter" bat; Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Departamentuko ordezkari bat eta moderadorea.

✓ Otamendi behinbehinean itxita

"Actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas" izeneko espedientearen tramitatu arte Otamendi dantzalekua itxiarazi dute. Badirudi Udala gogor jarri dela arlo honetan, aste honetan "Bar Los Hermanos" ere insonorizatu arte itxi duelako.

T x a n d a k a

Egoera salatu baten kronika



Malen Errasti*

Aurtengo Martxoaren 8an, emakumeek arantze berdinez etengabeko ziztadak jasaten jarraitzen dugu. Ideia eta kultura ximelduak dituen gizarte honetan, inork inoizperfume bat u-saintzen badu, pertsona hori, dudarik gabe, ez da emamea izango.

Guk askotan salatutako egoeraren aurrean, krudelki ixten dira begiak, eta hain krudelki esaten dugu, etengabeki, eraso larriak sufritzen bait ditugu gizarte matxista honetan, batez ere, gizonen erasota.

Berbaldietan, beraien ideologian orohar, gauzak garela esaten digute emakumeoi. Eskubide berdinak lortu ditugula sinesterazi nahi digute gizonen, baina ez dira gezur hutsak baizik. Gezurra da, emakumeek ez ditugu eskubide berdinak.

Begi bistakoa da:

Ez al da erasoaldia lanpostu bat ezin lortu ahal izatea emakumea izateagatik? Oraindik ere gizonak nahiago dituzte edozein lanetan. Esate baterako, mehatzari, suhiltzaile eta gaueko lan batzuek egiteko oztopo handiak jartzen dizkigute.

Ez al da erasoaldia jaiotzatik, aukeratu gabe, bakarrik sexu zehatz bat izateagatik, funtzio eta lan konkretuak eukitzea? Gure berezko lana ama eta etxekoandre izatea da.

Ez al da erasoaldia biztanleriaren erdia baino gehiago izanik, "biztanleria ez aktibo"tzat hartuak

izatea, batez ere, emakume gehienok egunbeteko lan bikoitza egiten dugunean? Lan estadistiketan ez gara agertzen, ekonomiak ukatzen gaitu, "produktu nazional bruto", "Renta per capita" delakoetan ere, emakume gehienak ez dira ikusten. Aberas-

tasunik ez dugula sortzen, diote, kontsumistatzat jotzen gaituzte.

Ez al da erasoaldia gizon baten lan berdina egitea eta emakume izateagatik diru gutxiago jasotzea? Eta profesional arloan, beti azkenak izatea, promozioaren posibilitatea gure eskuetatik kanpo jarriz, hori ez da beste erasoaldi bat?

Ez al da erasoaldia krisi espedienteetan, lankidego birmoldaketetan, ... lehenengo kaleratuak emakumeak izatea?

Ez al da erasoaldia ekonomia murgildurantz bultzatuak izatea? Soldata miserableak, lanbaldintza txarretan, babes juridikorik gabe, ordutegi guztiz aldakorak. Neskameek ez dituzte langileen eskubide berdinak, ordutegi luzeagoak egin behar dituzte soldata irigarriak jasotzeko.

Erasoaldi larri hauen aurrean, gaur egun erantzuna hauxe da: iraulketa! oihu egitera, salatza goaz. Ixilik ez gara inoiz gertatuko. Ez dugu gehiago negarrik egingo, jasan ere ez.

(* Arrasateko Emakumeen Asanbladako partaidea

BENGOA

ERAIKUNTZAK ETA BERRIZTAPENAK

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

URRATS

AIHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Nekazarien Elkarteak eratuko

Deba Garaiko Mankomunitatearen babespean Deba Garaiko mendiko nekazaritzaren Elkarteak eta Komiteak, Aste Santurako sortuko dira.

Elkarteak pertsonalitate juridiko propioa izango du, nekazariak botuen % 51a izango dutelarik. Elkarte honetan DEGADEL (Abelazle Elkarteak), GIFE (Frisoiak), ELE (Lantxak), EHNE Sindikatua, Camara Agraria delakoa, HEBE (Behiak), Behi-Alde Koop., Lana Koop., GEBE (Basoak) eta zortzi Udalek hartuko dute parte.

Elkarteak bultzatutako proiektuak onartzeko komite bat ere eratu-

ko da. Honek Udalen aldetik zortzi ordezkari, hiru Diputaziokoak, bat Eusko Jaurlaritzakoa, bat EHNE Sindikatukoa eta bat Camara Agrariako izango ditu.

Elkartearen finantziazioaren %60a Diputazioak ipiniko du, eta beste %40a, Udalek. Urte honetarako 150 milioitako aurrerontua du.


Programa hau bost urtetarako da eta, besteak beste, infraestruturak (bideak, ur-hornidura), proiektu konkretuak (mendia zelaia bihurtu, esaterako), zerbitzuak (eskola-garraioa) eta baso-turismoa bultzatzeko proiektuei ekingo zaie.

HBri alkatetza kentzeko PSOEn asmoaz, Lanak ez du zeresanik

Bai prentsan bai irratian egun hauetan zabaldu den albistearen arabera, PSOE, HBk alkatetza duen herrietan alkatetza koalizioari kentzeko estrategia bat martxan ipintzeko asmotan dabil. Guillermo Etxenik, PSOeko politika instituzionaleko idazkariak, prentsaurre batean Pasaia eta Arrasateko kasuak aipatu zituen; gehiengoa ez duten Udalen egoera jasangaitzat jo zuelarik.

Arrasateko PSOeko bozeramailea den Jose Luis Lanarekin harremanetan jarri gara eta hauxe da berak esandakoa: "prentsak ataratako zurrumurruak besterik ez dira. Ez dugu ezer esatekorik honetaz".

"Eskoria-tza" tituluarekin sei kantu bilduko dituen Extended-Playa grabatu du Eskoria-tza taldeak "Basati-Diskak" diska argitalextean: Sodomia, Azken Gerra, Gorrotoa, Sentimentala, Demokrazia eta Neurosia izenekoak. Guztira, 12 minutu. Taldea 1984.ean eratu zen, honako gazte hauek osatzen dutelarik: Josu Errasti (kitarra), Suso (bateria), Xabin (ahotsa) eskoriatzarrek eta Pepe Arregi (baxua) arrasatearrak. Plastikoa bi aste barru gartetxe, taberna eta dendetan salgai izango da.



Josu Errasti, kitarra jolea

Gaurko Plenoa

Gaur 7etan izango den Pleno arruntean, besteak beste, honako gai hauek tratatuko dira:

— J. M. Usatorre Lehen Alkatorde izendatzea.

— S-14 Sektorea Urbanitzatzeko Proiektuaren 1go Fasearen behin betirako onespena.

— Deba Garaiko Mendi-Nekazaritzarako Elkartean sartzea

— E. H. E.k Aulestiako Udalarilagutzeko mozioa aurkeztea.

Hurrengo asteazkenean, bestalde, 89ko aurrekontuak onartzeko aparteko plenoa izango da.



VIGURI, S.A.

T.B - BIDEO - Hi-Fi

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak.

INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN DITUGU ZURE EROSKETAK!!

VIGURI, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 798565

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE

Tfnoa: 761954 BERGARA

berango aroztegia

Arotzeria orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atek

Legarreko pabiloi industriala
(Behea) Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE

"Bake epaitegia" ezarri nahi

Urtarrilean martxan ipinitako "Ley de Plantas" deitutakoaren arabera, "Distritoko Epaitegi" guztiak "Bake Epaitegi" edo "Lehen Instanziako Epaitegia" bihurtuko dira. Arrasatekoaren kasuan, "Bake Epaitegia" bihurtuko da, konpetentzia gutxien duen epaitegi-mota, alegia.

Arrasateko jueza den Begoña Mujikaren esanetan, Arrasateko duen inportantziagatik "Lehen Instanziako Epaitegia" beharko luke izan; baina mota honetako epaitegien banaketa konzentrazio-sistema baten arabera egingo da, gure herria kanpoan geratuz.

Aldaketa hau dela eta, epaitegi berriaren egokitzea (San Frantzisko auzoan duela hiru urte erositako eta oraindik konpontzeke dagoen pi-



200 eskilara igo behar dira Epaitegira heltzeko

sua), Udalari dagokio, baina honek gestioak egingo ditu Arrasaten "Lehen Instanziako Epaitegia" izan dezagun.

Zabortegi kontrolatua Bergaran

Deba Garaiko Mankomunitateak hondakin solido ez toxikoetarako zabortegia egingo du Bergarako terrenoetan, Epele erreka inguruko ibarbide batean, hain zuzen.

Zabortegia kontrolatua izango da, zaborren tratamendu metodikoa egingo delarik.

Lekua aukeratzeko, ezaugarri geologikoak, bere iragaztezintasuna (inpermeabilitatea) batez ere;

eta bere kokapena, karga-lekueetatik zentruan egotea, kontutan hartu da.

Proiektua Bergarako Udalak eta Mankomunitateak onartuta dago, Martxoaren 14arte proiektua; eta erreklamaziorik ez balego, Diputazioa, pasatuko da honek baimena eman dezan.

Zabortegi honen helburua gure inguruan dauden 35 zabortegi (legalak nahiz ilegalak) kentzea eta denak baten zentralizatzea litzateke.

Gai honetaz hitzaldi informatiboak izango dira.

laburrak

- ✓ **88ko aurrekontuetan superabita**
Azken Gobernu Batzordeak 88.ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa onartu zuen, 27.720.000 pta.tako superabita izan duelarik. Likidazio honetatik atera daitekeenez, arlo bakoitzean ondoren zehazten diren kopuruak, handienetatik txikienetara, gastatu ziren:
- Pertsonala: 331.664.000 pta (arloan honen aurrekontuaren %93a); Hirigintza: 297.283.000 (% 81a); Zerbitzuak: 281.385.000 (%97a); Kultura eta Kirolak: 141.741.000 (%55a); Hezkuntza: 91.260.000 (%85a); Sanitatea: 33.405.000 (%73a); Auzoak: 29.589.000 (%73a); Euskara: 19.921.000 (%87a); Gobernu-Organuak: 14.943.000 (%92a); Gazteria: 1.853.000 (%26a).

✓ Txalaparta eta Espeleologi ikastaroak

Gazteri Batzordeak txalaparta eta espeleologi ikastaroak antolatuko ditu. Txalaparta ikastaroari dagokionez, 30 lagunentzat izango da 15 lagunetako txandetan banaturik. Ikastaroak Apirilaren 1etik Ekainaren 24rarte iraungo du, eta irakasleak Kepa Altube eta Maite izango dira.

Espeleologiakoa, bestalde, Besaideko Espeleologia Saileko hiru partaidek emanda, Irailetik Urrirarte egingo da.

✓ Labeko-Kobari buruzko erakusketa

"Orain dela 30.000 urte Labeko Koba" izenpean aztarnategi honetan aurkitutako materialez hornitutako erakusketa antolatuko da Apirilaren 7tik 21ra.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai, 9 Tfnoa:798997

Jaiotzak

- Urko Garate Arellano (Otsailak, 26). Gurasoak: Angel - Ana M^a.
- Juan Jose Cáceres González (Otsailak, 27). Gurasoak: Pedro - Juana.
- Josune Milán López (Otsailak, 28). Gurasoak: Daniel - Merche.
- Julen Galiano Agirre (Otsailak, 28). Gurasoak: Antonio - M^a Antonia.
- Maikel Sánchez Sotos (Martxoak, 1). Gurasoak: Alfonso - Rosario.
- Olaya Martins Linaza (Martxoak, 1). Gurasoak: Antonio - M^a Inmaculada.
- Alvaro Barriocanal Nieva (Martxoak, 5). Gurasoak: Javier - M^a Angeles.



Rocka Arrasatetik zehar

Igande honetan "Lords of the new church" talde britaniarraren bisita izango dugu. Taldea Stiv Bator (ahotsa), Brian James (kitarra), Nik Turner (bateria) eta Grant Flemming (baxua) osatzen dute. Garai batetan "after-punk" etiketapean aurkeztutako taldea dugu, eta probokadore-ospea dute. Dena den, sexua, politika edo erlijioa probokatzeko erabiltzeak gaur egun ez du

inor gutxi eskandalizatzen; gainera, badirudi mutilak lasaitu direla azken garai honetan.

Taldeak lau LP eta bi Maxi grabatu ditu, hauetariko maxi bat Iruñako "Oihuka" k editatuta, "Psycho Sex" izenekoa, hain zuzen ere. Sarritan bisitatu dute Euskadi, honako hau, gure artean egingo duten bigarren aktuzioa delarik. Kontzertu honen antolaketan Udaleko Gazte Batzordeak lagundu du.

Kontzertu gehiago antolatuko

Lehen kontzertua arrakastatsua suertatuko balitz, inizatiba pribatu baten eskutik gehiago antolatzeko egitasmoa dago. Udalak Kiroldedia igandeetan debalde uzteko konpromezua hartu du.

Dagoeneko hasiak dira beste talde batzuk ekartzeko kontaktuak. Eragileak San Juanetarako bi talde britaniar ezagun ekartzeko asmoa du, baina proiektuekin jarraitzeko lehenengo honek arrakasta izan beharko du.

Kontzertua 8etan hasiko da; sarrera alde zuzen erosi ezker, 800 pta. kostatuko da, eta takilan, 1.000.

Trikitilari Eskola

Dagoeneko zabalik dago trikitilari eskolan apuntatzeko epea. Ikastaro hauek parte hartzeko nahikoa da solfeoko oinarriko ezagutza izatea.

Klaseak Kepa Junkerak trikitilari ezagunak emango ditu. Astero ordubeteko klaseak izango dira SUDCeko lokalean (San Frantzisko auzoan); eta, ikasle-taldeak txikiak izango dira, ordu bakoitzean 4bat ikasle izango delarik. Lehenengo bi

edo hiru hilabetetan Kepak berak ipiniko ditu instrumentoak.

Inizatiba hau Udalak subentzionatzen du, ikasleak motibatuzeko kuota txiki bat ipiniko delarik.

Badirudi asmoa arrakasta lortzen ari dela, eta asko jota klaseak Apirilerako hasiko direla.

Bitartean eta Apirilaren 1arte, igandero jarraituko dute Sebero Altubeko trikitixa emaldiak.



Laja eta Landakanda bikoteak jende asko bildu zuen

Maiatz

**ILEAPAINDEGIA
mixtoa**

Elkano, 38 (Musakola)
Tfnoa: 79 58 78
ARRASATE

**MARTINEZ
aroztegia**

**Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak**

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 **ARRASATE**

Bi taldetan banaturik, 3etik 5etara eta 7etatik 9etara, hiru bider astero 30bat lagun aritzen dira buztinaz lanean "Leniz Zeramika-Eskola"ko ikastaroan.



Ikasle berriak buztinezko oinarrizko teknikak ikasten ari dira; beste batzuk, berriz, beste materialekin teknika berriak ikasten dituzte. Eskuez gain, tornoa ere erabiltzen dute.

Honako teknika hauek irakasten dira: "kuenkuak", "txurruak" eta plakak egitea; arabiarren teknika, "soka-sikua"; sobrebainua eta esmaltearen probak. Ikastaroak lau hilabete iraungo du, alfareroreen bati bisita egiteko asmoa ere badutelarik.

Catalunyako Eskolen Kontseiluko Lehendakariordea eta Bartzelonako Udaleko Hezkuntza Batzordeburua den Marta Matak "Lau maisu europear" izeneko erakusketa ibiltariari hasiera eman zion hitzaldi batekin. Marta abioiez etorri zen Bartzelonatik hitzaldia emateko. Montessori, Decroly, Piaget eta Freinet pedagogo europearren obrak aztertzeke lau hitzaldi izan dira. Monterroiko erakusketan, gaurko 8,30ak arte, beraien teoriak praktikan ipintzeko esperimendu didaktiko, joku pedagogiko eta ikusentzuteko materiala ikusgai izango da.



M. Mata, estatuko pedagogo onenatarikoa

Txalo! Bete egin zen Mondragoeko parrokia Donostiako Orfeoia hilaren lauean eman zuen emanaldia entzuteko. Jose Antonio Sainzen zuzendaritzapean, Gerardo Rifón organoan zegoelarik, hamahiru abesti eder eskaini zигuten.



Emanaldi atsegin bat eskaini ziguten

izen propioak

Jose Mari Usatorre, 35, HBko zinegotzia Mondragoeko Udalean, lehen alkateorde izendatu dute, Simon Martinez de Arroiabe ordezkatzeko. Jose Mari ingeniari industrial da, Lan Kide Aurrezkian ari da lanean eta Hirigintza batzordearen buru da oraingo Udalbatzan.

Juan Luis Arrieta, 38, Kooperatiben Kontseilu Goreneko idazkari teknikoa joan den Irailetik. Donostian enpresa-ikasketak egin ostean, Lan Kide Aurrezkiko enpresa-sailean aritu zen. Orain Gasteizen bizi da.

Eusebio Osa, 53, San Prudentzian (Elorregi auzoa) jaioa, Urtarrilean bere doktorego-tesia aurkeztu zuen Gasteizko Filologi eta Geografia-Historia Fakultatean: "Euskararen hitz ordena, komunikazio zereginaren arabera". Eusebiok euskararen morfosintaxia irakasten du Gasteizko Irakasle Eskolan. Halaber, Leioako Campus-ean Euskarazko Gabinete Teknikoko zuzendaria dugu.

Estibaliz Ormaetxea, 56, Martxoan zehar hogeitabi pintura erakusten ditu Etxe Aundi jatetxeko erakustokian. Hamazortzi urte margotzen hasi zela bete direnean, haxe da egiten duen bakarkako lehen erakusketa. UCEMeko Pertsonal sailean 35 urtez lan egin eta gero, orain langabezian dago.

Eugenio Otxoa, "Gerra", 37, Gatzagako alkatea. Txomin Iturberen omenezko jaialdia aurkezten ari zela, hiru astebetez geldirik egotera behartu duen zuntz-haustura mingarria sufritu zuen hanka batean. Honen ondorioz ez dakigu datorren larunbatean Antzuolara joaterik izango duen Deba Garaiko Txiste Txapelketan parte hartzera.

HIRE

Liburu eta oparidenda
iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

**ARRASATE
PRESS**

Zure publizitatea egiteko lekurik
egoki eta merkeena herrian



**ERAÑA
AHOLKULARITZA**

OROTARAKO ASEGUURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95

ARRASATE

Gurutze Gorria denon zerbitzura

Gutariko norbaitek istripuren bat jasan izanez gero Gurutze Gorria edo DYA etorriko lirateke laguntzera. Gurutze Gorria Mundu osoan zehar hedaturik dagoen erakundea dugu eta gure bailaran, San Prudentzian, hain zuzen ere, duela sei urtetik hona postu bat du, eguneko hogeitalau orduetan zer gertatuko zain. Bertan jende ugari aritzen da lanean, baina nortzuk ditugu bertan egoten direnak eta zeintzu dira beren motibazioak horrelako lan bat egiteko?



Gazte hauek 24 ordu ematen dute zaintza bakoitzean

Astean zehar soldaduak

San Prudentzioko Gurutze Goriaren postuan 21 gazte ditugu beren soldaduzka egiten. Gazte hauek boluntarioak ditugu, hau da, arrazoi desberdinak direla medio, soldaduzkara joateko deialdia jaso baino lehen Gurutze Gorrian eman dute beren izena. Era honetan ez dute ohizko soldaduzka egin beharko. Hau nahitaezko baldintza dugu, hots, gutxienez deialdia jaso baino urtebete lehen eman behar da izena, Gurutze Gorrian soldaduzka egin ahal izateko.

San Prudentzioko postuan dauden gazteak Deba Garaikoak ditugu eta 16 hilabetez egon beharko dute bertan, ohizko soldaduzkan baino lau hilabete gehiago, baina beren hitzetan honek pena merezi du, beren etxeetatik gertu daude eta egun bitik bat libre dute. Horrez gain, bertako bizitzan, militarren diziplina eta arauak ez dituzte bete behar.

Bertan soldaduzka egin ahal izateko orain arte ez zen inolako baldintzarik eskatzen, lehen laguntzetako ikastaro bat gainditzea ez ezik. Aurten onartu den lege baten arabera, Gurutze Gorrian soldaduzka egin nahi duen edozein gaztek ikastaro hau gainditzeaz gain test psikotekniko batzu ere gainditu beharko ditu.

prestaturik al daude larrialdi batetan beren laguntza eskaini ahal izateko? Postuko arduradunen hitzetan ikastaro horretan oinarrizko ezagupen batzu ematen zaizkie gazteei, eta hau kontutan izanik, larrialdi gutzietan aditu baten laguntza izaten dute. Honez gain CIRa egitera joan baino hiru edo lau hilabete lehenago postura noizean behin joan behar dute, lanera ohitzen joan daitezten.

Gazte hauek militarrekin nolabait esateko harremanik ez izan arren, gerra izanez gero bertara joateko beharra izango lukete, beren funtzioa zaurituak zaintzea bada ere.

Baina denak ez dira soldaduak

Deba Garaiko Gurutze Gorria 150 kidek osatzen dute, berauetatik 45en batek gutxi gorabehera zaintzetan parte hartzen duelarik. Pertsona hauetatik bost eguneko hogeitalau orduetan daude edonork aurkitzeko aukeran, istripua oso larria izanez gero beraiek bait dira larrialdira joango direnak. Pertsona hauek nahi dutelako daude bertan, askotan soldaduzka bertan egin dutenak ere izaten direlarik. Nahi izanez gero edonork eman dezake bere laguntza, baina balorea izan edo horretarako balio egin behar omen da. Arrazoi zehatz bat ez omen daiteke eman eta urte ugari bertan aritu arren, ezin esan omen

Deba Garaiko Gurutze Gorria 150 kidek osatzen dute

eta berauetatik 45ek zaintzetan parte hartzen du

Bestalde, Gurutze Gorriko postura joan aurretik Loiola edo Irungo koarteletan egin behar dute CIRa eta hango bizitza ezagutu ondoren Gurutze Gorriko postuan oso ondo daudela aitortzen dute gazteek.

Baina lehen laguntzarako ikastaro bat egin ondoren gazte hauek

daiteke zehazki lan hori zergatik egiten duten.

Gazte hauen lan eguna arratsaldeko ordubi t'erdietan hasten da hurrengo eguneko ordubiterdian amaitzen delarik, errelebo bakoitza zazpi lagunetakoa izaten da, hiru bertan dauden anbulantzia bako-

tzeko eta bat telefono deiak hartzeko. Bertan bizimodu lasaia daramate baina edozein momentutan alde egiteko prest egon behar dute. Gu beraiekin egon ginen egunean, anbulantzia bat izorratuta zegoela eta lau gazte baino ez zeuden eta denboralditxo bat egin ondoren, ziztu bizian alde egin behar izan zuten Arrasaten bihotzekoa eman bait zion pertsona bati. Bataz beste bertan dabiltzan lagunen adina 22 urtetakoa da, oso adin gaztea, egin beharreko lana kontutan izanik.

Estruktura aldaketa

Une honetan Gurutze Gorriaren antolakuntza eta berauek estatuko gobernu eta erakunde ezberdinekin dituzten harremanak aldatzen ari dira. Orain arte bertan soldaduzka egiten zuten gazteak defentsa ministeritzaren menpe zeuden, baina laster CIRA egin ondoren ez dute inolako harremanik izango ministeritza horrekin.

Horrez gain orain arte Gurutze Gorriaren lehendakaria gobernuak aukeratzen zuen eta bertako antolakuntza piramidala zen, hau da, goitik behera izendatzen ziren karguak. Orain eskualde-batzarrek beren or-

kualdearen barne antolaketa eta finantziaketa. Juan Luis Arana, Deba Garaiko postuan koodinaketa-lanak egiten dituenaren hitzetan, "guk Gipuzkoan zer egiten den

luzatu die laguntza gisa. Hau horrela izanik Deba Garaiko Gurutze Gorriaren mantenua bailaran saltzen den loteriaren mende dago gehien bat. Momentu honetan beren egoera ez omen da oso ona eta honen



Presaka alde egin behar izan zuten larrialdetara

badakigu, hilero Donostian bileak ditugulako baina hemendik irtenez gero eta Arabara edo joango bagina, bertako antolakuntza nolakoa den ez genuke jakingo". Eskualde guztiak antzeko jokabidea eramaten saiatzen dira baina ez dute inolako kanpo inpo-

adierazgarri, bertan soldaduzka egiten ari diren gazteak beren bazkaria etxetik ekarri beharra izan daiteke.

Edozein larrialditarako

Gurutze Gorriak bere zerbitzuak edozein eratako larrialdietan eskaintzen ditu, gutariko askok trafiko istripuetan edo antzekoetan eskaintzen dituela pentsatu arren, etxean edo lantegiren batetan edo mendian etab.etan ere eskaintzen dituzte beren zerbitzuak. Horretarako bi anbulantzia eta istripu oso larrietarako ibilgailu berezi bat dute. Beren lan arruntenetako bat kirol ekitaldi ezberdinetan egotea da. Behin istripua gertatu den tokian lehen laguntzak eskaini ondoren, Deba Garaiko Eskualde-ospitalera eramango dute zauritua beren lana hor amaitzen delarik.

Eskualde bakoitza autonomoa da eta bere gain dago eskualdearen barne antolaketa eta finantziaketa

dezkarriak aukeratzen dituzte, ordezkari hauek beren gainekoek eta horrela elkarren segidan estatuko lehendakartzarako terna bat aukeratu arte. Terna hau Gobernuari aurkeztuko zaio eta honek proposaturiko izenen artean bat aukeratu du.

Bestalde, eskualde bakoitza autonomoa da eta beraiek daramate es-

saketarik.

Bertan behar izaten dituzten materialak ordaindu eta beren lanen mantenua loteria eta sozioek ematen dieten diruarekin lortzen da, edo noizean behin erakunderen batek eskaintzen dien dirulaguntzaren bidez, aurtun adibidez, Ularkok diru kopuru bat



**BELUN
TABERNA**

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04





Martxoak 2, Osteguna. Gaueko 8,30, Amaia Zineman, Ernesto Telleria eibartarren **ESKORPION** pelikularen aurkezpena euskaraz. Aurkezpenean eta ondorengo elkarrizketan partaide izango dira filmaren zuzendaria eta ekoizlea.

Martxoak 4, Larunbata. Gaueko 8etan, Joan Batista Deunaren Parrokian, DONOSTIAKO ORFEOIAREN Kontzertua.

Martxoak 9, Osteguna. Gaueko 8,30etan, Amaia Zineman, BANDERA BELTZA Pelikula euskaraz.

Martxoak 11, Larunbata. Gaueko 10,30etan, Amaia Zineman, Elgoibarreko Tautada Taldearen ardurapean, **ETA ETXEKOAK ZER MODUZ?** antzeslaren aurkezpena.

Martxoak 18, Larunbata. Arratsaldeko 6etan, Amaia Zineman, Donostiako SAN IGNAZIO ANTZERTI MUSIKAL Taldearen eskutik, **EDURNEZURI** Musikalaren aurkezpena. Obra hau hurrek interpretatzen badute ere, pertsona helduentzat gomendagarria da.

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA TURISMO SAILA



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**

ARRASATEKO UDALA

Rosi Otadui: "Ni "festibalera" jaio nintzen"

Rosi Katanga gure herrian ezagunak diren pertsona horietakoa dugu eta berak ere hala dela aitortzen du, jendeak popularra egin duela gehituz. Festak bere izakera bereziarekin alaituz ikusiko dugu eta sarritan ezpainetan irrifarrea ere aterako digu.



Rosi Otadui, "Katanga"

Arrasate Press: Nondik datorkizu festetarako zaletasuna?

Rosi: Ni festibalera jaio nintzen, jaio nintzen hilabeteak berak esaten du, (en Mayo festival). Nire gurasoek ferietan nekazal lanabesak saltzen zituzten eta batetik eta bestetik zerbait geratu zait.

— **Gure herriko festei zerbait falta al zaie?**

— Ez dut uste gure festak direla eta, ezer falta zaionik gure herriari, sobran agian politika izango du. Gauza gehiago egin daitezke baina politika egitearekin nahikoa dute. Pertsona guztiei festa gehiago eman behar zaie, ez lan ordu gutxiago, festa gehiago baizik.

— **Nork antolatu beharko lituzke festak?**

— Beno Udala, herria dela izan behar da kontutan. Nire eritziz herriak antolatu beharko lituzke festak eta Udala herria da.

— **Zure eritziz zer dira festak eta jendeari zer eman behar zaio ondo pasa dezan?**

— Jendeak zu (alaia, divertida) izatea atsegin du, horrekin ondo pasatzen du; Jendeak horrekin farre egiten du eta besteen farrekin farre egiten du. Edozein tontakeri pertsona batentzat farregarria izan daiteke eta beste batentzat ez, sarritan segun eta nork egin duen tontakeria farre egingo du edo ez.

— **Zure zaletasun bat abestea dela esan al daiteke?**

— Beno nik zaletasun asko dut eta horien artean bat abestea da.

Gainera nik aingeruak bezala abesten dut.

— **"No llores por mi Argentina" abestiak zuretzat esanahi bereziren bat al dauka?**

— Ez, ez dauka esanahi berezirik, nik abesti hori abesteko momentu aproposa zela erabaki nuen eta abestu egin nuen besterik ez dago. Nik Argentina ezagutu ere ez dut egiten. Horrez gain nik erreperitorio handia dut, gertatzen dena da jendeak abesti hori eskatzen duela. Jendeak abesti hori entzun beharrean besteren bat entzun nahi baldin badu eskatzea dauka, jakina eskatzeko eman ere egin behar da.

— **Jendeak esaten duenari kasu egiten al diozu?**

— Beno apurren bat egiten diot, nire gurasoekin bizi naiz eta zertxobait beren menpe nago. Bestela jendeak zer esaten duen niri bost axola, baina beraiekin bizi naizenez ez zait gustatzen beraiek kalerari irtezean nik egin dudan zerbaitetaz edo esan dudan zerbaitetaz komentarioren bat entzutea, hori baino ez da. Nik olimpiadak aspaldi egin nituen.

— **Eta zer dela eta futbol ekipu bat entrenatzea?**

— Beno beste gauza batzuren artean nik "izatea" atsegin dut eta jendea eskatzen hurbil dabilan

Nik ez nekien

zertan izan nintekeen baliagarri eta futbol ekipu bat antolatzeaz hitz egin zidatenean zalantzarik gabe eman nuen baietza, eta kontutan izatekoa da ni "Mondragon club de futbol"eko

Pertsoneri ez zaie lan ordu gutxiago eman behar, festa gehiago baizik

masajista izan naizela. Momentu egokian eskatu zidaten eta beno neska taldea bildu nuen, 36 neska apuntatu ziren, gehiegi ekipu bat antolatzeko. Ondoren dirua bildu behar izan nuen ekipua aurrera atera ahal izateko, atez-ate aritu nintzan eta leku batzutan eman zidaten eta beste batzutan ez.

— **Temporada ona izan al duzue?**

— Beno liga dagoeneko amaitu da, orain kopako partiduak jokatzeko ari gara eta oso ondo gabiltzala esan daiteke. Nire eritziz, lehen taldean bigarren postua lortuko dugu. Lehera ez, Oiartzun ekipuari ezin izango diogulako irabazi, gu baino askoz arituagoak dira eta.

— **Zerbait egin beharko litzateke nesken futbola mutilen futbolaren parean egon dadin?**

— Ez daukagu zertan mutilen parean egon, neska futbolistak daude eta mutil futbolistak, hori da guztia. Ekipu on bat egonez gero potentziatu egin beharko litzateke baina besterik ez. Futbolista ona izan da atzerriko ekipuetatik ere deitzen zaituzte. Une honetan Oiartzun ekipoko bi jokalarik Italiako ligan dihardute. Gu oraindik oilandaxoak besterik ez gara, ez gara futboleko jokatzeko urtetan aritu.



Dorletako Ama Eskolako gazteenak

Txirrindulari denboraldia hasi da

Lazpiurrek irabazi zuen Logroñon

Dorletako-Amari dagokionez, honako talde hauek hartuko dute parte aurtengo denboraldian:

—2. mailako afizionatuak (Lagun Aro-Fagor);

—gazte-maila (Lagun Aro-Fagor),

—2. urteko kadeteak (Alejandro Altuna);

—1.go urteko kadeteak (Leya S.A.).

—Eta eskola-mailan, hiru talde daude: haur, alebin eta hasi-berriko mailetan, hirurak "Arrasate Kirolak"ek babesturik.

Joan den igandean 1. urteko kadete, gazte mailako eta 2. mailako afizionatuen denboraldiari eman zitzaizen hasiera.

Leya taldekoek XII. Hasierako txapelketa korritu zuten Ibaetan. 91 txirrindularik hartu zuten parte; Leyaren aldetik, Andoni Garcia Caballerok, Gorka Sudupek eta Igor Guenetxeak paper bikaina burutu zutelarik.

Gazte-mailakoei dagokionez, Eibarren Lagun Aro-Fagor taldeko hiru ziklistek bakarrik korritu zuten; Javier Garciak, Victor San Josek eta Gotzon Berezibarrek, hain zuzen, eta nahiko ongi, korritu ere.

Bigarren urteko afizionatuek Logroñon korritu zuten. 97 ziklista sarrreran, eta 1200 metrotako zirkuito bati 45 buleta eman ondoren, Lagun Aro-Fagor taldekoen nagusitasuna zeharokoa izan zelarik: 1. Javier Lazpiur; 2. Igor Arroiabe; 3. Victor Freire; 4. Mikel Larrea; 5. Asier Guenetxea. Eta taldeko beste hiru ere lehenengo hamarren artean helmugara helduz. Taldeka, jakina, eta Tarteko Helmugako Saria ere irabazi zuten.

ERESI

YAMAHA sonora PANASONIK CEC MUSIMA
 KEF Harman/Kardon ONKYO Vegas
 QUAD
 Mission baile Clener CASIO EGI
 Goodmans BASF NAKAMICHI
 HONNER Televes Ortela
 Zimmerman Polytone LARK Rotel
 Fujitsu Fox
 Cyrus MORESCINI
 JAMO JBL PIONEER KELLER PHILIPS
 TEAC Torque Admira Ortofon JUGGS
 carol
 Hantarex Alpine Estrella KONIKA UHER
 Tensai MELOS SHINTON
 Fonestar Otalora kalea Tfnoa 79 29 09

BRANKA

JATETXEA

Eguneko menua
eta karta

Zarugalde 1, Tfnoa 79 60 10

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE

OSTARKU DANTZALEKUA

ZATOZ IGANDEETAKO LOTORA! ASTE HONETAN 10.000PTAKO SARIA

Hezurak astintzeko lekurik aproposena

Uribarri Etorbidea 8


podiuma

Juan Jose Urrea, pilotaria

Iturripetik oso gertu bizi dela eta, 12 urterekin hasi zen Juan Jose Urrea pilotan. Bi urte geroago jadanik hasi zen destakatzen. 16 eta 17 urte zituela gazte-mailan Espainiako bi titulu lortu zituen; eta 19 urte betetzeko hilabete bat falta zitzaiola profesional mailako debuta izan zuen. Bigarren mailako bi finalerara heldu da, bata galduz eta bestea irabaziz. Iaz eskuz-eskuko 1.go Txapelketan parte hartu zuen, paper bikaina burutuz: bi pilotari eliminatu ondoren, "final laurdenetan" plantatu zen, Galarzaren kontra galduz.

Palmares bikain hau osatu ondoren, aurren bere ilusio guztiak lurrera bota dituen ezbeharraren etorri zaio. Eta ez du izkutatzen bere haserrea: "onartzen dut parejaka ez nabilela oso ondo, baina ez dago inolako arrazoirik ni kanpoan uzteko. Ibili zaitezke txarto parejaka eta primeran barka, edo alderantziz; ez dauka zerikusirik batak bestearekin"

Bere eliminazioa frontoietatik urrin erabaki da, bulegoetan hain zuzen ere. Hau da gehien amorratzen duena. Federazioak bere lehian parte hartzeko baietza eman zuen, eta enpresariak ezetza. Badirudi, beraz, enpresariaren eritzia besteen gainetik pasatu dela; "batzuk inkompetenteak dira; eta besteak, "mafioso" hutsak. Etxenagusia 8 hilebete lesionaturik egon ondoren, sartu zuten zerrendan, berak azkenean preparaturik ez dagoela esan



Bakarrik sei pilotari izango dira txapelketan

behar duelarik. Eta Arretxe iaz, Sean utzita eliminatu nuen...ez dago eskubiderik", errepikatzen du behin eta berriro.

Urrak ez dauka enpresariari buruz oso eritzirik onik. "enpresariak dira bakarrik ikusten dute; haiei pilotaria bost axola. Ondo zaudenean esplotatzen zaituzte, eta hain ondo ez zaudenean, agur..." "Putada" asko egin didate, baina hau itzela da".

Urrea txapelketa honetarako "a tope" entrenatzen zebilen, eta orain 2.eko taldeko-buru, izateaz konformatu beharko du. "Zer egin dezaket? Ez baduzu jokatzeko, ez duzu kobratzen".

Azken bolada honetan zenbaitek finalak hiru partiduetara izan beharko lukeela diote, Urrari ere gai honi buruzko eritzia eskatu diogu, "nirezat partidu bakarrekoa izan behar du; baliteke lehenengo partiduan eskuetatik txarto ataratzeko, eta bigarrenerako ez izan astirik errekuiperatzeko. Nirezat zuzenena finala, partidu bakarrekoa egitea da."

Solasalditxo amaitzeko, ea zein den bere favoritoa galdetu diogu, zalantzarik gabe erantzun digularik: "Retegi".

Bikain Gay Valentzian

Valentziako estalitako pistan eginitako Espainiako Txapelketan Jose Antonio Gayk 200 m.tako lasterketan parte hartu zuen.

Arrasateko recorda bi bider gainditu ondoren (22,75 eta 22,65 markekin), finalean plantatu zen. Hemen irteera eskasa egin zuela eta, laugarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

Mikeli egingo zaion omenaldirako, zero lerroko sarrerak salgai

Dagoeneko salgai daude mila pesetatan Hiren, Monten eta Arrasateko hainbat lantokietan, zero lerroko sarrerak.

Errealak ere ohiturazko tokietan sarrerak salgai ipini ditu, eta 1. eta 2. Dibisioko futbol talde guztiei bidaltzen ari die. Dendetan, bestalde, preziorik gabeko sarrerak lagatzen ari dira; horretarako hiru kontu zabaldu direlarik: Donostiako CAMen: 0-141329-3; Gipuzkoako Kutxan: 01-1407399-2; eta CLP-LKAN: 001.1.12269-4.

Eskubaloia: Larunbatean; 6,30etan Kiroldegian: Arrasate Kiroiak - GUSLA Urdulitz (2. Dibisioa)

Rugby: Larunbatean; 4,15etan Iturripen: Arrasate Kiroiak - Gau Txori (Bilbo).

Saskibaloia: Igandean, 11,30etan Kiroldegian: Okendo Kiroiak - Politeknikoa. (juniorra).

Pilota: Bergaran, larunbatean 4,30etan: Arrese - Ansotegi (eskuz-eskuko 1.go txapelketa).

Futbola: 3. Dibisioa: Galdakao - Mondragon.

Denborapasen soluzioak

Euskal Herria esagutuz

Lekeitio, Bermeo, Bakio, Ea, Elantxobe, Plentzia.

Jeroglifikus

Erre-pi-katu-du. Errepikatu du.



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

GIROA AROTZAK

ZABALDU BERRIA DUGU !!

Iturriotz, 14 ARRASATE

Arrasateko tximinoak



Ba ez. Ez da Arrasatera heldu inongo zirkorik; Gauza, zera da, lehengoan gure parrokia zaharkituaren albotik pasatzen ari ginela, zerbait bitxirik entzuteko aukera izan genuela; "han, ama, tximinoak!" zioen mutiko batek bere amari, kanpandorrera apuntatuz. Ezer gutxi gehitu ahal izan zuen amak: "Bai, ume; hoiek Arrasateko tximinoak dira". Egia esan, ez zegoen esateko gauza handirik, horixe

besterik ez bait dirudite.

Bada, gargolak dira, mamu eta abere beldurgarri itxuradun isurtegiak; berauen bidez ura ormetatik urruntxo isurtzen da, honela eraikuntzaren hondamena galeraziz. Arrasaten 1350. urteko azkenaldia ezarri ziren, irtenbide praktiko eta polit baten adibide ditugularik.

Animali izugarri hauetaz sobera hitzegin da. Batzuek diotenez, populua makurkeria edo bizio txarretatik uxatzeko elizgizonek proposaturiko imajinak dira. Erizpide honek erromaniko garaiko eliza baten kasuan balio dezake, hots, kristorenganako beldurrean oinarritzen zen gizarte baten eraginpean eraikitako eliza baten kasuan, ordukoa zigorraren kristoa bait zen. Baina ez XIV. mendeko mentalitate irekiagoaren baitan. Mende honetan

pentasamolde erlijiosoak barkatzen duen kristora jotzen du.

Bestalde, gotiko artea naturara bueltatzen da, erromanikoko eskematismo zorrotza alde batera utziz. Eskultoreak bere eskua aske uzten du, irudimena landu; bigarren mailako txoko hauek izanik askatasun artistiko hau gauzatzeko hautatzen dituen tokiak. Hau hala zen, sarrertan eta antzerako leku sakratuetan lan serioago bat burutu beharra izan ten bait zen, profesionalagoa, prestakuntza hobea eskatzen zuena.

Halakoak gutxi zeuden, eta zeudenak, garesti; eta nahiz eta bolada haietan merkatu eta hiriek goraka egin, gure herritxo hau ez zen oso aberatsa. Agian horren kariz ez dago Arrasaten era hontako eskultura gehiago.

Mikel Arregi

SEAT

Udalaitz, S. A.



**GARANTIARIK
SENDOENA!**



Tailerra: Musakola Auzoa, z/g

Erakusketa: Zarugalde, 35 behea

Tfnoak: 79 21 25 - 79 18 80

ARRASATE

**Ingeleseko
klaseak**



maila guztietarako
**INGELESERAKO
SARBIDEA**

Iturriotz, 25 Tfnoa: 79 90 36
Arrasate

Bidekurutzeta, 19 Tfnoa: 76 30 01
Bergara

"PAL"

burdindegia, brikolage
eta
tresneria

Uribarri Etorbidea, 3

Tfnoa: 79 31 99

Arrasate

**MUSAKOLAKO
OSTATUA**

Taberna
Jafetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g Tfnoa 79 20 50

Fiak Tipo-a, urteko autoa European



“Urteko autoa”ren nazioarteko izendapena, Europako komunikabiderik handienek – El Pais egunkaria barne – ematen dute urtero. Modelo sortu berrien artean egiten da aukera hau, baina urte batzuetatik besteetara dexente aldatzen da. Denboran zehar “urteko autoa” izan direnen artean berdin aurki daitezke luxuzko autoak edo arruntak, handiak edo txikiak, o-hizko parametroen barruan nabarmentzen direnak edo parametro horien aldakuntza sakonak proposatzen dituztenak.

Aurtengoan, Fiat Tipo suertatu da garaile, eta garaile garbia, aurrez lehia handia espero bazen ere. Tiporen kontutuan hartu dira bere diseinuaren razionaltasuna eta, batez ere, autogintzaren etorkizunerako finkatzen dituen ardatz berriak. Horretan nabari da beraren disienatzaile den Giugiaro italiarraren esku aparta.

Beste hainbat arlotan ere Giugiaro diseinatzaile ospetsuak, lan bikaina egin du autogintzan hasia zenetik. Bereak dira lehen Volkswagwn Golf mitiko hura, Seat eta Fiat-en artean banatzen den Panda-Marbella, Seat Ibiza eta Fiat Uno ere. Guztiak arrakastatsuak. Eta guztiak Tipo-rekin borobildu den proposamenaren nolabaiteko iragarleak.

Citroen etxea aerodinamikaren ikerkuntzan hasi zenez geroztik, –pentsa zein futurista izan zen “tibu-roi” famatu hura– gai hau mugi ezi-

neko baldintza izatera iritsi da autogintzan. Aerodinamikaren zerbitzutan gero eta auto zorrotzagoak egin dira, gero eta baxuagoak, zenbaitetan bidaiariaren erosotasunaren kaltetan. Giuggiaroren ustetan, aerodinamika bezain inportantea da barruko konforta eta bere autoak altuak, zabalak eta karratuak izaten dira.

Bestalde, gehienen joera motore indartsuago eta biziagoen aldekoa denean, Giuggiarok patxadazko motoretara bultzatu du Fiat-a, egungo trafikoa gehiegizkoa suertatzen den potentzia sakrifikatuz, kontsumoaren eta motorearen iraupenaren mesedetan.

Eta Fiat Tipo-ren sariak adierazten duenez –eta ez ahaztu orain urte gutxi Fiat Uno-k jaso zuela sari berdina– Giuggiaroren proposamenak onartuak izaten ari dira. Etorkizuna hortik legoke.

Mikel Intxausti



SAN VIATOR IKASTOLA

Ikastolaren eskaintza

*OHO (EGB) }
*IEE (REM) } 6 urtetik 18 urte bitartean Ikastolan egoteko aukera

*OHO*n D eredia eta B eredia indartua.

*Batxilergo orokorra: 2 kurtso (euskaraz eta erderaz)

*Goi Batxilergoa: Giza Zientziak

Natur Zientziak (euskaraz eta erderaz)

OHOko matrikula epea: Martxoak 7tik 17ra bitartean.

Bazkideen Batzarre Arrunta

Datorren Martxoak 21ean, asteartea,
arratsaldeko 6,30etan 1. deialdian eta
7,00etan 2. deialdian.

Informazioa eta argibideak: 79 04 11 telefonoan.

Ipuinen balioa haurren garapen psikologikoan



Aurreko artikuluetan, hizkuntza-
ren ikaste-prozesuan ipuinak eduki
ditzakeen funtzioak aztertu ditugu;
gaur, eta gai honekin bukatzeko,
garapen psikologikoan duen balioa

aztertuko dugu.

**Beldurra gainditzeko
bide bat, autonomia lor-
tzeko bide bat.**

Ipuin fantastikoetan,
(Txano Gorritxu, Zazpi
antxumeak eta otsoa,
Hansel eta Gretel...) haurrak, protagonistare-
kin batera, protagonis-
tarekin identifikatuz,
arriskuen aurrean *beldur-
rra* sentituko du, baita
arriskua gaindituz *poza
eta lasaitasuna* ere. Bi-
dean eta protagonistak

beldurren aurrean eduki

Autonomiaren beharra

Haurrak nagusiaren beharra du,
bere babesa galtzeko beldur da;

ipuin bidez, nagusien dependen-
tziatik irtetzeak alde onak dituela
ikusten du, eta bere bizitzaren jabe
izaten ikasten du. Arriskuen aurrean
atzera egin beharrean aurrera jo
behar duela ikasten du.

Hona hemen Bettelheimen Hansel eta Gretel "Txokolatzeko etxea"ren protagonistei buruz esaten diguna:

"Sorgin-itxurapean gauzatzen den amesgaiztoaren beldurra kontrolatzean, Hansel eta Gretelek gaitzaren kontra joateko beren indar propioan konfidantza hartzen dute, eta hau ongi erabiltzen ikasten dutenean, ez dute iadanik beren ongitasunerako beldurpean bizi beharrik, ez eta beste inoren menpe egon beharrik ere".

Klarion taldea

PRONOVIAS DOCHY



ezkontzak

Independencia 20
GASTEIZ

Eroski Kontsumatzaileen Komitea Informazioa eta Formazioa

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan

IKASI Akademiak

HONAKO HAUEK EMATEN DITU:

* NORBANAKO ETA TREBAKUNTZAKO IKASKETAK:

O. H. O. 1.º Aldia B.U.P. Matematikak, Fisika
2.º Aldia K.O.U. Kimika, Biologia (Zientziak eta Letrak)
Latin, Griego, etab.

L.H.- Sail guztiak
R.E.M.

EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

* UNIBERTSITARIOENTZAT - IKASI AKADEMIA

— TEKNIKA INJINERUTZA
— ENPRESA-ZIENTZIAK

IKASIn ikasketak gainditzeko lagunduko dizugu!

ITURRIOTZ, 25 2. - Tfnoa: 76 40 33 (Behin behinean) eta 79 73 52

ARRASATEN gaude.

GABINETE MEDIKOA

Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analisiak

Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08

Hartutako Inmuno Eskasiaren Sindromea

Noizbehinka osasun edo sendakuntzari dagozkion albiste onak ere heltzen zaizkigu. Gaurkoan horrelako notizia on bat gustora emango dizuegu, eta arrazoi askorengatik garrantzitsua gainera.


Deba Garaia, Komunitate Autonomo mailan, HIES (SIDA) edo Hartutako Inmuno Eskasiaren Sindromea gutxien agertzen duen eskualdea omen da eta Euskadi mailan ere horrela izango da seguruaski, Nafarroa eta Iparraldeko herriez datu konkreturik ez badugu ere.

Datu hau garrantzizkoa da, denok dakigun bezala HIES gaixotasun honek drogarekiko zaletasunarekin zerikusia duelako, baita homosexualitatearekin ere. Horrela ba, HIESa gure artean gutxi agertzen bada, beste bi fenomenoekin berdin gertatzen dela esan genezake.


Baina, ez gaitezen alaitu azkarregi, beste alderdia ere badu albiste honek eta. Grafikoan ikus dezakezuenetz, gaitz honen tasarik altuena hemen Euskal Herrian agertzen da, eta Euskal Herria aztertuz gero, herriak horrela sailkatzen dira kopuru haundienetik txikienera: Elgoibar, Zumarraga, Pasaia, Hernani, Bermeo, Donostia, Eibar, Leioa, Beasain, Durango, Errenteria, Bilbo, Santurtzi, Portugalete, Barakaldo, Getxo eta Gasteiz.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

HIES kasuak milioi biztanleko eta Komunitate-Elkarteka. 1988ko Abendua



HIES kasuak eskualdeka. E. H. A. E. 1988ko Iraila



Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8
Tfnoa: 79 63 34

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak
pintxo eta mokau
gozoak

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza,
gestio eta
salmenta-zerbitzuak
eskaintzen
dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1
ARRASATE

Agirre Miota Gestoria

Zerga deklarazioak
Erdiko kale 28, 2.
Tfnoa: 79 34 33

Memesa

Arrasate
79 42 22

KLINIKA DENTALA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
(Umeentzat ere bai)

Iturriotz kalea, 7 Tfnoa: 79 73 88

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa : 79 96 90 ARRASATE



**EUSKALTZALEA BAZARA EDO
EUSKARA IKASTEN BAZABILTZA
EDO... ETA ARRASATE
EUSKALDUNTZEKO ZURE
LAGUNTZATXOA ESKAINTZEKO
PREST BAZAUDE, AEDko ATEAK
ZABALIK DITUZU**

**EGIN ZAITEZ A. E. D.
ELKARTEAREN BAZKIDE!**

Interesatzen bazaizu beic ezazu azpian duzun txartela eta etorri lasaitasun osoz edozein arratsaldetan gure lokalera, bertan, informazio zehatzagoa eman ahal izango dizugu eta.



BAZKIDE TXARTELA

(1. ABIZENA)

(2. ABIZENA)

(IZENA)

(ZUZENBIDEA)

(TELEFONOA)

(JAIOTZE DATA)

(LANTEGIA/IKASTETXEA)

(LAN./IKAST. TFNOA.)

(AURREZKI KUTXA Munizipala, G. K. edo LKA)

(K/K ZENBAKIA)

Sinadura

ETXEBIZITZAK

- Garaje individuala salgai Udala enparantzan. Tfnoa: 79 90 55.
- 37m²ko merkataritzako lokala salgai. Kale aldea,13. Tfnoa: 79 83 50.
- Pisua salgai Oben Errekan. Tfnoa: 79 67 59
- Merkataritzako lokala esku aldatu nahi da Uribe Auzoan. Tfnoa: 79 49 88 Prezioa elkarren artean jartzeko.
- Culleran (Balentzia) pisua errentan eman nahi da urte osoan zehar. Tfnoa: 79 71 94
- Pisua salgai. Aldai gain Tfnoa: 79 71 93
- Pisua salgai Salamankan. Tfnoa: 79 70 72.
- Merkataritzako lokala saldu edo errentan eman nahi da. 37m²; Kalealdea, 13. Tfnoa. 798350
- Pisua salgai altzari eta guzti, Makatzetan (5-4^a A) Tfnoa. 799357
- Apartamentua saltzen dut Zarautzen altzari eta guzti. Prezioa 8. 500. 000 pta. Tfnoa 79 24 79.
- Lehen bait lehen pisu bat errentan hartu nahi dugu Arrasaten, merkea bada hobe. Tfnoa 79 09 00. Lorea.
- Paper-jostailu denda esku aldatu nahi da Uribe--Auzoan. Interesatuak dei 79 47 85 telefonora.

LANA

- Neska bat behar dugu umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak dei 79 35 44 telefonora.
- Emakume gazte batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 58 61.
- Neska bat behar dugu haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, goizez 10,30etatik letara eta arratsaldez 4etatik 8,30etara. Interesatuak dei 79 64 50 telefonora.
- Irakasleak behar dira BBBeta UBirako (Matematika eta Fisika) Ingenieritzarako (Kalkulua, Algebra eta Fisika) Interesatuak dei 76 40 33 telefonora
- Andre euskaldunak arratsaldez etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa.79 40 53 (Maite)
- Emakumea behar da hilabete gutxiko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko, ahalbalitz euskalduna. Berehala hasi eta bi urtetarako luzatu daitekeelarik. Interesatuak dei 79 66 38 telefonora. 6 terdietatik 7etara.
- Irakasleak behar dira. BBB eta UBirako (Matematika eta Fisika) eta Ingenieritzarako (Kalkulua, Algebra eta Fisika).Interesatuak dei 79 40 33 telefonora.

- Erreminta-zorroztaila behar du Eibar-ko enpresa batek. Interesatuak dei 713227-713789 telefonoetara.
- Makina-erremintak saltzeko pertsona behar du Eibarko enpresa batek. Interesatuak Eibarko 286 postakutxara bidali behar dute beren curriculum.
- Eibarko enpresa batek idazkari bat behar du. Interesatuak Eibarko 286 postakutxara bidali behar dute beren curriculum.

SALEROSKETAK

- Peugeot 205 SR salgai. 86ko Uztailekoa, Tfnoa: 945-44 53 93 Ana.
- Ia estreinatu gabeko larruzko jaka saltzen dut. Peio. Tfnoa.: 79 26 62
- Umeentzako kotxea salgai. Tfnoa 79 71 13
- MARAFI markako kafegailua saldu nahi nuke, berri samarra, baxera eta guzti. Oso merke. Tfnoa 79 97 31 .
- 10 abiadura eta 54 neurrizko "Corbeta" txirringa salgai dago. Tfnoa 79 58 29.
- Bigarren eskuko sukaldeko altzariak saltzen dira., egoera onean. Interesatuak dei telefonora 79 93 14
- R5-TS autoa (SS-I matrikula) salgai. Tfnoa: 79 7135.



ARRASATEN HILDAKOAK

- Asuncion Etxaniz Egudazu 88 urte
- Rosa Egiluz Abarrategi 96 urte
- Mauricia Torres Gallego 61 urte
- Victoriano Trojaola Agirre 67 urte
- Julian Goikoetxea Abasolo 83 urte
- Guadalupe Orellana Argada 86 urte

EZKERRONEZ

Arrasaten hil berri den

**JOSEFINA
MADINABEITIA
ELEJALDEr e n**

seme-alabak eta gainerantzeko ahaideek beren eskerronik beroenak agertu nahi dizkiete bai bere samin agurra bidali zutenei, baita ere bere aldeko hileta-elizkizunetara agertu ziren guzti.

**ARRASATE
1989ko Martxoaren 10ean**

Famauen ahotik



"...proba klase guztietan parte hartutekue nok..."

PATXI MURGOITIO

"Erguiñetik Udelara 12 miñutuen juenda nak"

FITXA TEKNIKUE

JAIXO : Udelan, Kabuenien. 1951-VI-28xen.

TITULUEK :

Krossien: Gipuzkoako Kanpeoi, eta "Campeon Vasco-Navarro".

Pista: Eskolarteko Españaiko rekorra eta, soldadutzan, 110 balletan, Españaiko Kanpeoi.

Goitibeherak: Munduko Txapeldun.

Etiopien eskolakue

Hamalau urteaz profesionalien hasi nitzuan eskolan. Artien Udelara kamiñoik ez eta gora ta behera beti oñez. Illunkeran zazpietarako etxera juen bier eta zazpiek laren gutxietan be ondion pelotan Iturripen. Ordureko allegau gure bazan biekto añiketari ein! Itxi pelotioi eta aide bide zaharrotan gora. Erguiñetik Udelara hamabi mifetuen juenda nak. Bestela be Udelatxen entrenetan nitzuan gehixen.

Hamasei urteaz entrenadoriaz

Mundrauen etxauan ekipoik eta Bergarakuekin hasi nitzuan. Han Enrike San Nikolas katalana euki naixuan entrenadore, oso ona. Gero "Atletico S. Sebastian"-era juen nitzuan eta entrenadorie Mundrauera etorten jakuan astero. Aste osorako lana emoten jostan eta egunero entrenetan nitzuan.

Entrenadorie oso inportantie dok hik fede apur bat badutzek, aiñdduteko dana itxu-itxuen eitten dok eta. Mutikotan zapatilla eta txandal barrixek emon ezkerororatute egoten gitzuan: lo be eurrekin.

Gero be ez gaixuan diruik kobrau; premixuek bai, radixo, erloju eta holakuek.

Españaiko rekorra

Españaiko eskola-arteko kan-

peonatuen genbitzan. Kanpos Oñetiarra, Joxe Inazio Elortza eta hirurok juen gitzuan Madrilleko "Estadio Vallermoso"ra finaletara. Nik eliminatorixatan Españaiko rekorra einde nukan. Asko gitzela eta bi serie ein jittuen. Niri 2.a tokau jatan, neuretako onena. Holan aurrekuek ze denpora ein dauen jakittek aukerie egoten dok. Denporok noz esango geontzela, salidie emon juzkuen bigarrenekuoi be. Berrehun metro einde gero, hor entzuten juat Españaiko rekor barrixe, neuk neukena baño 2 segundu gutxiaukue. Hori entzun eta etxaleruen pare urten naixuan. Bestioren rekorra segundo baten jeistie lortu naixuan.

Danerako balixo

Niri deporte guztiek gustau izen jatek eta atletismuen be danetik eitten naixuan, bai krossien eta bai pistan.

Krossien jubenilletan Gipuzkuako kanpeoi izen nitzuan eta Junior mallan "Campeon Vasco Navarro". Pistan 400 ballak, 110 ballak, 800, 1500, 3000, triple saltue... danetik.

Soldautzan, kanpeonatu militarretan, 110 balletan Españaiko kanpeoi urten naixuan.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Hemen inguruko erlojurik bikaiñena Uberako "Pisto" k euki eban. Mundu guztian be gutxi haren moduko erlojurik.

— Ha zuan erlojua, ha! Harek erloju onenai be orduan hamar minutu etaratzen jotsan.

Eguneroko moduan badator abadia bere sotana haundixakin brebiarixua errezauaz, prixa barik, eta ikusten dau peskarixa ibai ertzian kañiai helduta, serixo, anborrañen batek noiz pikauko.

— Ze, badihardugu? - abadiak.

— Bai, badihardugu ba.

— Eta zer, asko harrapau dogu ero?

— Ez ba, ez ba. - gizonak ibaixai begirik kentzeke.

— Zenbat? - dana jakin nahi abadiak.

— Jaingoikuak beste.

— Bat orduan...

— Ez, bapez.

Oin baiño garbixaua zuan izan be ibaixa, eta badoia gure peskarixa kañia botatzera. Txixaria jarri zotsan amuan, baiña anborrañiak paso.

"Aber momorrua jarritta". Baiña arraiñak ezta pikatzeko kiñadaik pe. Azkenian arrain litxarero harekin ernegauta, etara poltsikotik pezetia eta zera esan zotsen haserre:

— Aiba, hartu pezetia eta erosi nahi dozuena.


Juan Martin Elexpuru



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



JESUS ELKORO

BIDEO - KLUBA

.....Tfnoa: 791886
ARRASATE



Zarugalde kalea

Indalezio Ojanguren eibartar ezagunak gerra aurretik ateratako argazki honetan Zarugalde kalea agertzen zaigu. Erdi Aroaren azken aldian itxuratuko zen Zarugalde "errebal" moduan: hau da, herri-zati hau hirigune zaharreko harresietik kanpora eta Garagartzatik datorren Ugaran erreka bestaldean sortu zitzaigun, Aramaixo eta Bizkairanzko irteeran. Kale-barrenean garai bateko San Agustin komentua ikus dezakegu, bere arku eta guzti: ezker-eskuma etxe banaka batzuk, tartean ortuak dituztela: oinezkoak kalean zehar inolako trafiko-arazorik gabe. Argazki honetan azaltzen denak gaurregungo Zarugaldekin baino antz gehiago izango zuen, seguraski, duela zenbait mendetako "errebal" zaharrarekin.

**ARTE LENIZ
koadro
eta moldurak**

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

**Goiztiri
Opariak**

Maalako Errebala, 11
Tfnoa 79 87 43

ARRASATEKO, ESKOLA PUBLIKOETAKO
MATRIKULA-EPEA IREKI DA:

MARTXOAREN 7tik 23ra

HEZKUNTZA EREDUAK:

- D EREDUA: IKASKETA GUZ-
TIAK EUSKARA HUTSEAN
- B EREDUA: HEZKUNTZA
ELEBIDUNA

*Hezkuntza partehartzailea,
zientifikoa, sortzailea, integrala,
euskalduna, Arrasatearra,
eta DOHAIN*

Informazioa osatu nahi baduzu, Ikastorduetan eskolara etor zaitezke, dei ezazu telefonoz:

ERGUIN	79 77 74
S.ANDRES	79 00 44
FERIXALEKUA	79 05 53
MUSAKOLA	79 04 49

Poesia begi-belarri

Gutxi omen gara poesiazaleok. Eta baieztapen honek egi-itxura hartzen du, baldin eta poesiazale izen horren pean soil-soilik poesia liburuak bilatzen, ezagutzen, erosten, irakurtzen, gomentatzen eta elkarri pasatzen dizkiogunak jartzen bagara.

Baina ez nago oso ziur gaia planteatzeko modurik zuzenena horixeden. Alde batetik, poesia formala bere kanal ezkutuetatik ateratzen denean (hau da, distribuzio kas-karra eta publizitate eskasa egiten zaien liburu txiki horietatik alde egiten duenean) publikoren erantzuna

oso bestelakoa izaten da. Adibiderik nabarmenena kantarena izango litzateke: hortxe ditugu, esaterako, Imanol, Laboa, Ruper eta abar luze baten lanak. Bestaldetik, poesia ezin daiteke jendearen gustuetatik hai urrun egon, honek asmatutako baliabide

eta jokuak gero publizitatean erabiliak badira minimimerrak erosi edo erretzeari utz diezaiogun.

Idea solte hauek zertara? Poesiazaleok jakin ondo dakigu poesia (zentzurik desinteresatuenean) emankorra dela, berea oso errentabilitate sakon eta pertsonala bada ere. Eta

emankortasun hori zabaltzeko bideetako bat poesia bere katakunbetatik (horixe bait dira poesi liburuak askorentzat) ateratzea dela.

Ahalegin horren inguruan koka daiteke Atxaga, Iturralde, Ordorika eta De la Casa anaiek Euskal Herrian zehar jendaurreko emankizunetan aurkeztu zuten *Henry Bengoa. Inventarium* deituriko lana. Eta ahalegin berebean orain liburuska-kasset moduan argitaratzea, hasieran zuzeneko musika-errezitatuaren bidez eskainitakoa.

Orijinala, puzzle narratibo eran antolatutako abesti

zahar eta berri, poema, ipuintxo bilduma. Lilura berezia, zinta entzunaz batera irakurtzeak sortzen diguna (abestiak zarata hutsa ez direnean, ez dugu askotan gauza bera egin disketako hitzekin?).

G.M.



ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64



KILL-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

■ **Loiolako Herri Irratia:** Azken urteotan hezurretan geratu da Loiolako Herri Irratiko euskal programazioa. Goizean goiz pizten baduzue aparailu hori, Madriletik datozen ahotsak entzungo dituzue. Goizeko ordurik onenak Ferrerek eramaten ditu. Donostian egiten den eguerdiko albistegia ez da euskara oparoagatik nabaritzen. Bilbon egiten den "Euskadin gaur"en ere euskara urri, ia ezer ez. Tartean, irla galduen gisan, gure arteko kale kantoiak argitzen dituzten izar eta txinpartak. Gauza gutxi, egia esan, euskal entzulegoarentzat, saio elebidunak aipatzeak ez du merezi eta. Ematen du euskaldungoari baino kasu handiagoa egiten zaiola SER eta horrelakoek suposatzen duten erronkari. Eta susmoa dut bai batzuek zein besteek aurrea galtzen ari direla. Azken datuek, zerbaitetarako balio badute behintzat, horixe adierazten dute: Loiolako Herri Irratia entzulego dexente ari dela galtzen, alegia. Bestela esanda, erdararen eremuan ez bide du aurrerapenik egiten eta euskarazkoan atzeraka doala. Madril, Loiola, Donostia, Bilbo, euskaraz, erdaraz...Definizio falta ote?

■ **Boxeoa: Tyson-Bruno:** Luis Solana, RTVEko zuzendari orokor berriak eragotzi egin ditu boxeoa burrukak TVEn. Ondorioz, espainolek ez zuten aukerarik izan Tyson-ek bere munduko txapelaz egin zuen bederatzigarren defentsa ikusi ahal izateko. Euskaldunoi, berriz, katalan eta gailegoekin batera, aukera eman zitzaigun geure egongeletako epel eta bakardadean, aipatu burruka ikusi ala ez, geuk erabakitzeke. Eskertzekoa benetan, zeren boxeoaoren gorabeherak alde batera utzita, horrelako kasuetan nor hartu beharko luke erabakia, "Big Brother"ek ala geuk?

■ **Hamar disko irabazi nahi?** 10 disko, 10 kasete edo 5 konpakto, zeuk aukeratzekoak, irabazi gura badituzu, postal bat -edo nahi dituzun beste- bidali, "Kostaldeko tren" irratsaiora, zera esanez: zein den ITOIZ taldearen azken diskoaren izenburua. Postalak EUSKADI IRRATIRA igorri, Andia kalea 13; 20004 Donostia. Zozketa Martxoaren 17an izango da. Zorte on!

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Denborapasa,** larunbatetik ostiralera pasatu da. 15,10etan. Aste honetan Denborapasako erreporte-roak Altsasuaraino joan zaizkigu, bertako Ageda Urrestarazurekin elkarrizketa egitera. Honetaz gain, Nafarroako kantuen konkurtsoa, Ordiziako Trikitilari Eguna, Bilbo-ko Expofoto eta Isaban grabaturiko Fondoko Eskiari buruzko erreportaiak.

■ **Funtzioa,** ostiralean, 21,00etan.. Aste honetako gonbidatua, Xabier Azkargorta futboleko entrenatzailea izango da. Ansorenak eta Otaegik "Max 7" eta "Sut 4" izeneko martitzarren sketcha eskeiniko digute. Eta Gontzal Mendibilek "Merezi ote", "Argiñe" eta "Igela" abestuko ditu.

■ **Arka galduaren bila** ("Raiders of the lost ark", 1981). Zuzendaria: Steven Spielberg. Antzezleak: Harrison Ford, Karen Allen, Ronald Lacey. 30. hamarkadan amerikar akeologari eta ikertzaile batak, balio izugarria duen tresna erazuten dizkie naziei, Jainkoak aginteak idatzitako harrien zatiak gordetzen dituen kutxa majikoa hain zuzen ere.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

SORGIÑA IRRATIA (105 F.M)

TFNOA: 79 82 68

Ostirala

7-9 KK Profe puag
7-9 Piramyd
10-11,30 Fermin Crosby-ren ordua
11,30-12,30 Beltza blues klub

Larunbata

8-9 Onda katxondoa
9-11 Dana ondo dabil
11-1 Banpiroak

Igandea

10-11 Puuagg!!! (Musika eta kontra-
informazioa)

Asteartea


7-8 A ze hiru hanka aulki batentzat
8-10 Pufa kalufa
10-11 Bai zera!
11-12 Irrintzi

Osteguna

1-2 Gaurko bazkaria
7-8 Exterminioa helburu
8-9 Mara-mara (Emakumeen
Asanblada)
9-10 Itxungitako dragoie (AED)
10-11 Amen Jesus!
11-12 Gau erdiko klasikoak

E	P	A	T	O	T	T	O	N	A
R	L	L	E	K	E	I	T	I	O
R	E	A	D	O	K	A	J	A	E
A	N	I	N	A	Z	K	A	I	M
I	T	U	B	T	F	E	K	J	R
N	Z	I	K	U	X	A	L	A	E
U	I	G	H	I	M	O	X	E	B
E	A	L	P	D	A	D	B	D	I
T	A	D	A	Z	D	S	T	E	A
A	S	K	J	I	O	J	U	W	Y

Jeroglifikus



Gaizki egin zuen baina...

P. Mokordo

Euskal Herria ezagutuz

Bizkaiko kosta ezagutzen duzula? Ez zaizu oso nekeza gertatuko bertako sei herriren izenak saltsa honetan aurkitzea

Soluzioak: 19. orrialdean.

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Zeure burua kontrolatu beharko zenuke, gauzak poliki eta eta ondo egin behar dira eta. Egoera berrietarako ez zaude prestatuta, dena den, saiatuz gero, ohitu egingo zara.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Ez gehiegi eskatu zeure buruari, momentu honetan osasun baliagarriena duzu eta. Berreskura ezazu indarra, gutxi barru beharrezkoa izango bait da.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Nahi duzun hori lortzeko gogorrago jokatu behar duzu, ez pentsa dena eginda dagoela. Bidea harriz josita dago baina bidea ibiltzen egiten da.



CANCER
Ekainaren 22etik
Uztailaren 22ra

Cupido zure atzetik doa. Agian aprobetxatu beharko zenuke Udaberria zure emozioak berritzatzeko. Ideia gustatzen ez bazaizu, erne ibili aingeruaren geziekin.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Astea umore onez hasiko duzu. Aprobetxatu momentua bizitzaz gozatzeko. Nahiz eta lanpeturik egon, ikasi behar duzu denetarako denbora aurkitzen.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Oso jakintsua zara baina berriz topo egin duzu harri berberarekin eta honen ondorioz desorekatuta zabilzta. Udaberriarekin argituko zara.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ezer ez da aldatuko, portaeraz aldatzen ez baduzu. Balio ez zaizuna bota eta ez zaitzez begira gelditu. Ahalik eta azkarren ekin behar diozu nahi diozunari.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Aspertuta zaude aspaldi honetan. Denbora gehiegi ematen duzu lanean, benetan gustatzen zaizuna alde batera utziz. Banatu hobeto orduak, egunak denetarako ematen du eta.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Nahiz eta zuretzat lagunak oso inportanteak izan, azken garai honetan alde batera utzi dituzu. Haiekin egoteak ziurtasuna eta alaitasuna dakarzikizu, beraz, zaindu lagunak.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Egoera hobetu denez baloratu egin beharko zenuke. Ireki begiak eta bizitzaren alde onak ikusi, asko dira eta. Bidairen bat egitea ondo letorkizuke.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Aurrera proiektu horrekin! Hasieran ez da erreza izango baina ez duzu arazo larriegirik izango. Atzean uzten duzunarekiko harremanak ez ahaztu. Zorte ona izan.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Laguntza handia lan horretan izanez gero, balio duena zeure iritzia da. Dena ondo joango da zuri dagokizuna besteen eskuetan ez baduzu uzten.

Arrasateko tamaina ertaineko industriek egiten dituzten produktuak.

Joan zen astean ikusi genituen enpresa nagusien eginkizunak zeintzu ziren. Aste honetan tamaina ertainekoen zerrenda dakarzikuegu, egiten dituzten produktuak azalduz:

—AURKI, S.C.L (255 langile)

Makina-erremintezako ekipu elektronikoa, makineria, robotak eta maneia gailuak. Zenbakizko kontrolak. Koden erakusgailu digitalak. Kaptazio-sistema linealak nahiz biraketazkoak; motoreen abiaduraren erregulatuzaileak, Muntaia automatizazioarako linea eta makinak. Industria-robotak. Automatizazioarako elementu standarrak.

—POLMETASA, S.A (201 langile)

Hauts metalikoak eta pieza sinterizatuak, hautsen metalurgia. Burdinezko pieza sinterizatuak, altzairuzkoak aleazio berezizkoak, brontzez-

koak eta latoizkoak: autoen industriarako kojinetekak, etab....

—FAGOR CLIMA, S.COOP. LTDA (168 langile)

Etxeko tresnak, gasezko ur-berogailu elektrikoak.

—FELICIANO ARANZABAL Y CIA, S.A.(112 langile)

Sarrailgintzako artikulua. Giltzarraoak. Sarrailak. Ziriak.Lapurreta aurkako kable eta kateak.

—BRUES ERAIKUNTZAK, E.MUG (90 langile)

Eraikuntzak, mantenimendu lanak eta mota guztietako etxeen eraberrikuntzak.

—UTILLAJES URIBESALGO, S.A. (84 langile)

Galdaketarako makineria eta tresneria.

—GAMEI, S.A. (73 langile)

Makina erreminta. Mota askotariko prentsak: maraskadurazkoak, torlojodun eraunspenezkoak, hidraulikoak (estrusiatzeko eta forjatzeko, kalibratzeko) grabatzekoak, eszen-

trikoak, mihi-murritzapenerako hidraulikoak; Tutuak; etab...; totxoentzako zitzaila hidraulikoak.

—TREFASA, S.A.L. (67 langile)

Hotzetako estanzapioetarako altzairu bereziak trefilatzea. Altzairupuntak; Altzairu bereziaz estali gabeko merkataritzako alanbreak.

—ALEJANDRO ALTUNA, S.A. (55 langile)

Mota guztietako giltzak: lauak, puntudunak, gorjak, artistikoak eta armairutarako; altzairuzkoak eta alpaka berezizkoak, eta plastiko beltzezko edo kolorezko buruarekin; giltza duplikatzeko makinak; giltzak gordetzeko eta sailkatzeko armairuak saltzea (saltokirako mostadoreak) bai eta giltzagintzaz eta giltzak duplikatzeaz zer ikusirik duten zenbait produktu ere.

—FUNDICIONES MAGDALENA OSLA, S.L. (43 langile)

Galdagintza, ferreteria-artikulua.

—LEUNKOR, S.C.L. (43 langile)

Mekanizatuak.



SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA

Arrasateko "San Frantzisko Xabier" Ikastolan 1989-1990 ikasturte berrirako izena emateko epea zabalik dago.

Inskribatzeko epea: Martxoaren 1etik 23arte

Lekua: Gazteluondoko ikastetxea

Erakusteko bi eredu eskaintzen ditugu:

* Ama hizkuntza euskera dutenentzat: "D" eredua.

* Ama hizkuntza erdera dutenentzat: Metodologi berria guztiz euskaraz.